Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mertxe Bilbao Bilbao

Erandio
Bizkaia (1929)



Aurkibidea

Biografia



1929. urtean jaio zen Erandioko Goierri auzoan. Ama Loiukoa zuen eta aita Erandioko Goierri auzokoa. Aitite-amamak Erandioko Atsonekoa eta Laskituerrota baserrikoak ziren eta gurasoak ezkondu zirenean, bi baserrien alboan zegoen pisu batera bizitzen joan ziren. Aita tratantea zen eta amak etxeko produktuak saltzeaz gain, jostun lanak egiten zituen. Etxe aurrean, solo txiki bat izaten zuten eta atzealdean, hiru edo lau behiz osatutako korta. Zazpi neba-arrebatatik bosgarrena izan zen bera. Sei urtetatik 14 urtera arte Erandioko eskolan ikasi zuen eta 15 urte zituela "kordeleria" fabrikan sartu zen ezkondu zen arte. Taberna batean zerbitzari bezala jardun zuen urte batez eta bertan ezagutu zuen senarra. 22 urterekin ezkondu eta lana utzi zuen senarra eta etxea zaintzearren. Etxera ezkondu zen eta bertan 15 urte egon eta gero, senarrak eta berak Sondikan pisu bat erostea erabaki zuten.

Zintak

ERA-001

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Andere
- **Data**: 2012-10-11
- **Iraupena**: 89 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Bilbao Telletxea, Arantza

Pasarteak

1. Udaletxea Erandiogoikotik Desertura

- **Erref**: ERA-001/002
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:01:36. **Bukatu**: 00:02:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Mertxe jaio zenean udaletxea Erandiogoikoan (Campan) zegoen. Nazionalek Desertura eraman zuten. Goiko eskualdea beti izan da euskalduna eta behekoa erdalduna.

Transkripzioa
- Ni jaio nintzenean, ayuntamentu egon zan Lacampa Erandion. Eskole ta guzti, halan bandereaz ta guzti. Baie gero sartu ziren beste tandakook eta eroan eben “a Desierto Erandio”, da maketeri gehiau da, gure da euskaldune, gure zona beti izen da euskaldune eta beti izen da Disiertu, ba, ez kategorik igual dau, kategorik gabe, baie han izen die oso "castellano" gehiao asko be gu baiño. Bai, han Erandion jaio nintzen.
- Orduen Lacampan.
- Lacampa Erandio, han iminten dau oin be Lacampa Erandio, Santa Maria de Erandio.
- A beittu, bale, bale.
- Bautizau ta guzti, ezkondu ta guzti, “primera comunion” ta guzti Lacampa Erandio.

2. Pisuan bizi arren, soloa eta ganadua zuten

- **Erref**: ERA-001/003
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:02:32. **Bukatu**: 00:05:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Gurasoak baserrikoak ziren, baina pisu batera ezkondu ziren. Hala ere beti izan dute soloa, eta umetan ez zitzaien baserriko ezer falta. Aita tratantea izan zen; geroago Euskalduna-ko langilea. Amak etxearen ardura zuen, eta soloko barazkiak saltzera joaten zen Desertura. Ganadu apur bat ere bazuten.

Transkripzioa
- Eta baserrixen?
- Baserri ez. Aititek eta amamak albon... Bai, gure aite eta ama ezkondu zin pisu barri betera ta albon eon gentzezan baserriez. Eta gero beste amama ta aitite be baserri... dana... Laurotan.
- Ta zelan zekon, izenik bazekon aittitten eta amuman baserrixek?
- Antzone bat eta Laskituerrota beste.
- Antzone?
- Bai.
- Eta bestiena…
- Bestea Laskituerrota.
- A, beittu. Ta zuek zer, pisue orduen euki zenduen edo?
- Bai, bai, pisu, pisu. Pisu eder bat euki gendun barri-barri, eurok estreñata. Eta gero, ba, surtidu besteti [etxaldeti gehiau], aitek eiten eun tratante modure ta gero baserrin behar. Gero sartu zan Euskalduna-n urte askotan,

baia, ostean, baserriko gauzek beti etxen. Eta pisun be, aman ta aiten pisuen bean, aukien, ba, zati haundi bet, soloa esaten gendun ordun, ta simenterak eta beti-beti iten [genduen] lana bertan eta ezen faltarik ez genduen eukiten, e, ez genduen eukiten. Gero txarrau izen da gerrea eta guzti atzerau izen danean, baie txikerretan ez, e? txikerretan ez. Eta gero... Bueno, ia zer preguntaten doztezun.
- Ama etxeko lanak eta bere bendejetxue einde saltzen joaten zien, joaten zan, a Desierto Erandio joaten zan gero, han egon zan plaza handire.
- Eta han, orduen, zure amak eta zuen soluen, ezta?
- Bai, bai, bai, ha izen zan ya etxeko bendejetxu. Etxe aurren ya eukiten gendun zati handi bet eta hareaz iten gendun... Eurok, nik ez ondino, ba euron bendejetxu egun-egunen. Eta... ama iten zan horreaz eta aite, ba, bere lanean eta gero tratante.
- Horrek handixego eukiko eben ez?
- Bai, bai, bai, ya propiedade handiau, bai.
- Honbre, pisuen euki eta, gainera, solue euki....
- Bai, bai, ondo, ondo, gauzolak ekoiten ademas ta ganadue beti etxen ta beti...
- Ganadue be orduen pisuen?
- Bai, bai, ganadue be bai, gortea eiten zan ta...
- Eta nun eukitzen zenduen ganadue?
- Kontran. Etxea halan eta gero kontran gortea inte eta hantxe eukiten eben ganadue aitek. Ez asko e, hiru edo lau bahi, txalatxuk be bai. Bera erosten izeten zan ta saltzen eta halantxe, pobremente, lan asko inde.

3. Aita tratante

- **Erref**: ERA-001/004
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:05:42. **Bukatu**: 00:07:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Ferietara joaten zen aita tratulari. Arespalditzara eta Zorrotzara, besteak beste. Zorrotzan domekero egiten zen feria. Ganadua erosi eta saldu egiten zuen.

Transkripzioa
-Eta orduan trante lanak eta non eitten ebazen aittek batez be? Nun? Aitte tratantie bazan, nun egoten zan edo nundik nora edo zelan eitten eban?
-Bai, joaten zan a Respaldiza, nik ez dakit non daon, baie hortariko, oin eiten diren feri duztiik, joaten zan. Nik ez dakit zelan, memorin dekoten... ba... zelan? aitu, ointxe akordaten naz, ez naz akordaten. Ba igual, Zorrozan iten zan feri duztii; oin ez, ezta? baie Zorrozan izen zan, hemeko aldien danan feri izeten zan eta hara joaten zan domeka duztitan. Eta gero hor, esan dotsutena, Respaldiza eta [zenbet] gauze ferik eiten zirenen hara joaten zan. Nik e... txikerra izeten nintzen ordun ta ez dekot memorin be, baie, zera, ganaduez joaten zan batera eta bestera. Gero tratantekaz ganaduten, zera, kamioi handik eroten zeren, saltzeko edo erosteko.
-Eta zein zan beran biharra? Tratante moduen, zer egin biher eban berak?
-Ba erosi eta saldu. Eta gero, ba, soloa itzel gustetan jakon, itzel-itzel-itzel.

4. Euskalduna-ko langilea izan zen aita

- **Erref**: ERA-001/005
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:07:05. **Bukatu**: 00:09:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:
Euskalduna-n egin zuen lan aitak. Itsasontziak egiten zituzten, eta goizerik gauera egiten zuten lan. Lutxanara oinez joaten zen; handik Deustuko unibertsitatera eta orain Guggenheim dagoen tokira, han baitzegoen dikea. Bazkaldu ere bertan egiten zuten. Rematxadore lanak egiten zituen. Tratulari baino diru gehiago irabazten zuen; pentsio ona geratu zitzaion lantegitik.

Transkripzioa
- Eta gero [gehau] gu ya handitxoauek eitten izen gintzezenen, Euskaldunan sartu zan. Euskalduna ez zen lela hemeko zereko Asuko. Oin hamen, e, Guggenheim, han on zan Euskalduna. Gure aitek han in ituzen, ba... nire baiño lelau dao beste bat ta dekoz “ochenta y cinco años” ta ordun sartu zan Euskaldunan. Eta iten eben behar, bueno, bueno, bueno...! Barkuk, itzelezko behar iten eben, e. Eta zenbet ordu! Ba goxeik ohera igual. Bai. [Trantan de] itxi in behar gero, ze bakizu... Baie han on zan zera unibersidade bajaten eta Lutxanaraino oinez joaten zan, eta gero Lutxanan koiu ta unibersidaderaino, ta handik bajatu eta Guggenheim, han egon zan Euskalduna, dike. Han iten euen behar.
- Ta han berak ze bihar eitten eban?
- “Remachador”, “Remachador”.
- Ta ze eitten eban berak?
- Bueno...! Eskuk dana... Ba tornilluk e... zertu te. Bai. Esku tzar batzuk eta... bueno, gogortute,
kallokaz. Eta gerra, bakizu, triste etxera etor barik-eta, hantxe emoten otsen komedorren emoten otsen bazkariez. Ta ez bera, danak, danak. Danak danak halantxe. Ta etxen, ba, guk, badinotsut, zelan bateti ba aititek-eta beti eukin eben terreno asko, halan falta-falta handirik ezta, baie sueldun bile behar izen gendun joan Euskaldunara. Ganaduk baino gihau emoten otson, seguruau. Ta jubila in zan bertati eta ederto jubila zan.
- Urte asko orduen hor?
- Bai, asko! Kontu ataraizu zenbet e... nire ahizteak dekoz “ochenta y cinco años”, berrogeita hamabost urte, larogei, larogei urte, larogeita bost, eta ha jaio zanen sartu zan Euskaldunan. Urte asko.

5. Goserik ez, baina biziorik ere ez

- **Erref**: ERA-001/006
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:09:28. **Bukatu**: 00:11:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Zazpi neba-arreba izan ziren. Falta barik hazi ziren, baina bizio gutxirekin.

Transkripzioa
- Orduan izan zarie bi aizta?
- Ez, zazpi!
- Zazpi?
- Zazpi, zazpi neba-arreba, bai.
- Eta zu zenbatgarrena?
- Eta bat hil in zan. Bai, gaztetan, ez dakit sei hilebetegaz edo. Baia, ostean, bat, zaharrena, euki dot Mejikon; han hil da. Ta gero beste bat Donostin, bigarrena; hil da hori be. Eta gero beste bat dekot Bilbon, hirugarrena; hori bixi da. Eta gero laugarrena, hori nire aiztea da, gero ni eta gero beste bat dekot Alsasuan.
- Osea, zu seigarrena?
- Sei. Bost... sei?
- Bostgarrena?
- Bosgarrena, ezta? Bai. Ze gero dekot hori, Alsasuan daona, neskato, hori... 80 urte dekoz. Eta gero beste bat, neba bat, hil zan, zazpigarrena.
- Bai, beittu. Honbre ba pisu baten egoteko hainbeste ume...
-Bai bai, ederra euki gendun e, esan notsun lehelaukotan, e. Ederra-ederra euki gendun, etxe ederra. Baiñe...
- Ze akordu dekozu zure umetakue?
- Bueno, ba, ez mizkeri handirik, bastante ba “basico” esaten dana: faltarik ez igual, baia, ostean, bizio gitxiaz, oso gitxiaz. Goserik ez, ezta? Baia, osten, ba, bizio gitxi. Zazpi ta eurok bi, bederatzi, “mesa redonda”.
- Bai, bai.
- Ez zan [...]. Ni gazterik hasi nintzen irebazten gero, e; sartu nintzen ensegida fabrika baten ta. Ta beti euki dot neure mobimentutxu beti euki dot, baie, esaten [notsena]: mizkeri askorik ez, dana miseri.
- Ya. Eta orduen lan gehixenak-edo eingo ebezen igual nagosixenak? Edo...? Etxekolanak-eta diñot. Lagunduko eben nagusixenak. Edo danok ein dozue apur bat?
- Bai, danok apur bet, e. Bai, danok, danok, mutilek zein neskak. Euron... Badakizu, len soldadizki mutilek joaten ziren eta etxea apurten zanez asko... Bi nire aurreti. Eta gero, ba, etorten zienen, fabrikera, berriz, fabriketara.

6. Etxera ezkondu zen

- **Erref**: ERA-001/008
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:12:33. **Bukatu**: 00:13:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Etxera ezkondu zen, eta hamabost urte egin zituzten gurasoekin. Handik Sondikara joan ziren.

Transkripzioa
- Esan dostezu zazpi neba-arreba izen zariela, ez?

- Bai.
- Eta zu ze urtera arte egon zara etxien edo?
- Ni etxen bertan ba beti kasi-kasi, ze ezkondu nintzen etxera... Etxera ezkondu nintzen eta kasi-kasi beti etxen aite eta amaz. Aite ta amaz ta aizte bateaz be bai, hor Altsasuan bizi danaz, hareaz be bai, etxen. Eta gero han ein genduzen hamabost urte aite eta aman... Gero Sondiken erosi gendun pisue eta ordura arte bertan. Ba berrogeta... Ez... Hogeta hamabost urtera arte egon nintzen han. Eta mutilekaz gero Sondikera. Txikerra izen zan danontzat eta Sondikera orduen etorri gintzezan. Baie, osten, beti etxen, beti etxen.

7. Eskolan erdaraz eta etxean euskaraz

- **Erref**: ERA-001/009
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:13:26. **Bukatu**: 00:16:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Valladolideko bi ahizpa izan zituzten maistra Erandiogoikoko eskolan (bata oso gaiztoa, bestea, aldiz, oso ona). Haren aholkuak gogoratzen ditu oraindik. Sei urtetik hamalaura ibili zen eskolan; erdaraz. Etxean, aitak behartzen zituzten euskaraz egitera. Radio Pirenaica entzuten zuten gurasoek, baina umeek ez. Eskolan instrukzioak eta kantak irakasten zizkieten; errepresio handia bizi izan zuten.

Transkripzioa
- Bai, bertan, Erandion, Erandion.
- La Campan berton?
- La Campan. La campan, bai. Eta euki genduzen maistra bi oso onak. Bueno oso onak ez. Aiztek izen ziren biek. Bat oso txarra, gazteena, bueno... Guadalupe eta Amalia, de Valladolid. Kontue atareizu, /kontateizu] euskera... “Aldeanas, burras” esaten [euskuen]. “Aldeanas, burras, no sabeis castellano”. Eta goikoa, sei urteaz, goikoa, Parbulas, oso okerra, txarra, soltera izen zan. Gero beste hiru alaba euki ituzen, oso ona, Guadalupe, oso ona. Ikisi ta... Ondino berak esaten ituzen gauzek be ni akorde iten naz.
- Adibidez, zer esaten eban?
- Aitu, henbrana esaten [euskun]: “Nunca vayáis con los dobladillos sueltos, nunca con los botones sueltos y nunca con lamparones” eta ni ondino be akorde iten naz horrek gauzekaz. Bai, akorde iten naz, e? “Pa ser mujeres curiosas tenéis que hacer eso; los dobladillos sueltos nunca”. Eta gero laborak iten genduzen eguenetan, festoia eta gauzetxuk han eiten genduzen. Baia gauza handirik ez, e. Gero, badakizu, gaztetan sartu nintzen fabrikera eta gero ezkondu... hamen.
- Eta eskolan berton, orduen, erderaz?
- Erderaz dana, baie aitek...
- Betidanik? Txikitatik?
- Dana, dana...
- Zenbat urtegaz sartu zinen zu?
- Seigaz. Eta hamahiru-hamalau urterako urten. Baie aitek etxen...

“Emongo dotsuet atxurren kirtenaz emongo dotsuet halan [jarraitzen] badozue", erderaz ez eitearren, eta halantxe mantendu gendun, e! Osteen, euki gendun radio bat eta [koidxuten euren] hamarratan Radio Pirenaica. Eta etxen entzuten egoten ziren eurok, baie guk “Ala! kanpora! Zuek ez dozue entzun behar hori”. Eta dana... dana represino. Dana. Beti...
- Eskolan...
- Eskolan, eskolan. Eskolan "Viva..." holan kantzinok deberak baino gihiau.
- Bai?
- Bai, bai. bai. Kantzino danak. Instrukzinok iten mutilekaz. Bai hor. Hori guztie eiten gendun. Ez dakit lekzinok eiten bagenduzen, baie instrukzino... Eta “Han cogido Barcelona” eta kanpanak be guztik, eleizako guztik, jo ta jo ta jo ta bandera guztik be ipinite eta danak halantxe “Cara al sol” eta guztik eta halantxe. Bueno...! eta ordutan, e, ordutan. Bai, bai. Izen zan gogorra izen zan, gogorra.

8. Ulertzen ez zituzten mehatxuak jasotzen zituztenumetan

- **Erref**: ERA-001/010
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:16:18. **Bukatu**: 00:17:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Errazionamenduan zeuden olioa, azukrea eta tabakoa. Gerra garaian, dendara joaten zirenean, umeak izan arren mehatxatu egiten zituzten euskaldunak izateagatik. Ez ziren politikan sartzen gurasoak.

Transkripzioa
- Eta ogi beharra zinon eta esaten gendun: “Franco, antes que eras blanco nos dabas pan blanco y ahora que eres caudillo poco y amarillo”. Baie [sentido begiditute ogi] guztie eta [hantxe be jan ein ber] eta txarto pasa gendun e. Dana errazionamentun, olioa be errazionamentun eta azukre be dana bai errazionamentu, gizonen tabako be bai... dana-dana errazionamentun.
- Eta nora juten ziñen errazionamendue hartzeko?
- Dendara, hantxe Lacampan estanku bat egon zan eta eiten euen estanko eta ultramarinos dana iten euen. Baia han be... bueno... “Nacionalistas vascos, ala, os van a llevar al barco” eta gu ume txikerrak ondino e? eta zer gure deuen /gudun/ esan be ez gendun jakiten. “Ala, nacionalistas vascos, venga, todos al barco, os echen allí”.
- Eta dendakoeri nok eruten eutson edo ze ba denda horretan izten ebezen geuzek?Eta gure kontran beti. Ta gu zer? umetxu betzuk izen [bagintzen] ondino! ume batzuk! Eta aite be inoz ez da izen halan partidutarra, e. Ama be ez.

9. Etxean euskaraz, kalean erdaraz

- **Erref**: ERA-001/011
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:17:44. **Bukatu**: 00:21:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Amak ez zekien gazteleraz, aitak apur bat, ferietan ikasitakoa. Ama etxez etxeko joskilea (jostuna) izan zen, Loiuko Lauroetakoa izan zen; aita Erandiokoa. Gurasoekin beti euskaraz egin zuten. Kanpotar asko etorri zen Erandiora, eta kaleko hizkuntza gaztelera izan zen Bilbo inguruan. Donostian, ez. Seme-alabak giro erdaldun horretan hasi dira eta euskara ondo irakatsi ez izanaren damu da orain Mertxe.

Transkripzioa
- Kontu egixu: gure amak ez zuen jakin erdera be ez. Erdera be ez. Aittek apur bet ferietatik ibilten zanen, baia amak erdera be ez, dana euskera, han Laurotako troka batekoa zan eta erderaz jakin be ez. Bera izen zan joskile
- Nor izan zan joskile?
- Ama, ama, ama joskile izen. Ibilten zan etxe honetati, halan apurtxu bet [zera], makiñeaz burure koiute, ama ibilten zan.
- Orduen ez zan izeten bakarrik etxekoegaz, ez? Hor joskile izen bazan...
- Bai, joskile, joskile, joskile, bai, eta bastante ona, e? bastante ona. Aitu hor dao erretratu. Bere erropa guztik berak ein zituzen /eituzen/, ezkontako be, eta oso guapa dao e, oso guapa dao. Bai, joskile, joskile izen zan. Bai, gero hainbeste ume eta bakizu ba.
- Eta nungue esan dozu zala ama?
- Ama Loiuko, Laurotako.
- Eta aitte nungue da? Edo nungue zan?
- E?
- Aitte?
- Benetako Erandioko. Erandioko.
- Orduen umetan erderie hutse, ez? Eskolan behintzat.
- Bai, bai, baia euskera ez duu galdu inoz, e? txarto edo ondo. Liburutaku ez dakigu ezer, ezta? Baie guk e... eurok jakiena iten eben eurok eta geuk be bai eta inoz ez dogu galdu euskera e? inoz be ez. Bat dau hor Alsasuan, baie bera be ezkondu zan gero beste... “alaves, falso y cortes” eta erderaz... euskeraz [ez guzen] entzun be eta oin txikerrak dana euskera. Euronak e? Semea ezkondu da, semea ezkondu da euskeraz eiten dana eta hiru familitxu dekez eta dana euskera. Baie bera izen da kontrarioa. “¿Cómo te has casado con una vasca si no quieres?”.
- Eta lagunekaz eta be bai erderaz eskolan?
- Bai, iten gendun haren euskeraz, erderaz, bai, baie etxen euskera. Nik hori dekot pena, ze nire mutilek be ez dakiela ondo euskeraz eta nire erru dala esaten dot, ze nire etxen iten [zen] euskera eta horregaiti ez dot galdu. Hori egi da, e? Nik oin be esaten dot: neure erru da, neure erru da. Baie gero honek etorri ziren gaztetxu ya edadea ya dana etorri zan kanpotarra, e. Etxeti urten eta ya erdera, etxeti urten ta erdera. Dana maketeri, dana maketeri izeten zan. Eta gero, bakizu, fazilena da. Fazilau da erderaz eite euskeraz baiño.
- Orduen jolasak-eta be bai erderaz eitten zenduen?
- Bai, erdera, erdera, erdera, erdera.
- Orduen ez zara akordako holan kantuek edo jolasteko edo kubiketan…
- Ez, ez, ez, dana erdera izen zen kantuek eta guztik. Ikisi danak gero e? fazilago eiten gendun ta, baie erderaz dana.

- Kalien be bai?
- Kalien be bai. Bertakogaz ez. Bertakok ez. Bertakok Mungikok eta bertakok Erandiokok matrimoniok gu baino zarragok dana euskeraz. Baie gero hain famili etorri zanen be dana erderaz fazilago, dana erderaz. Hemen Bilbon beti izen da erderaz gehiau euskaldune baiño eta Donostin dana euskera. Ni joaten nitzen mutiltxu biekaz lelago Donostire eta matrimonio gure moduko danak euskera. Eta enbidi bet emoten osten niri... Baie gero guk erdera, guk erdera. Etxen ez, e? Etxen euskeraz ein duu, e? Etxen euskeraz ein duu, baie erderaz fazilao askoz be.

10. Kordelerian egin zuen lan

- **Erref**: ERA-001/012
- **Iraupena**: 0:04:36. **Hasi**: 00:21:34. **Bukatu**: 00:26:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Bilbo Handiko lantegiak

Laburpena:
Hamabost urterekin kordelerian hasi zen lanean, ezkondu arte. Itsasontzietarako sokak egiten zituzten. Zaharrenak irakasten zion gazteenari lanean. Egunean lau joan-etorri egiten zituzten etxera, negu zein uda. Egun guztia ematen zuten lanean; presazko lanak zeudenean, gauez ere lan egiten zuten. kalamua eta sisala erabiltzen zuten. Ez zen lan fina.

Transkripzioa
–Ta eskolatik urten zendunien, hamahiru-hamalau urtegaz, zer ein zendun?
–Hamabostegaz ba, sartu nintzen ia lanean.
–Nun?
–Ba kordelerie ixaten zan ordun, eta hantxe ein genduzen, ba, ezkondurarte. Ez gendun euki...
–[...]
–Ba, kordelak, barkutarako, txikotek. Makinek, zea, egon zien ta gero, [haragiez] beti firuk eiten; ta gero trentza eiten zan ba makinagaz. Guk atara firuk, xixal ta zuek ez dakizue zer dan baie...
–Ez.
–Eta kañamo ta duzti, ba, fabriketan dana... Dana etorten zan fabriketati, e... Han zien, ademas, e... Barkun uzabak etorten zien; ze barkuk eroaten zien horrekaz erramalakaz gero amarrateko; eta horrek eiten genduzen guk, hainbeste urten.
–Eta zelan ikesi zendun, adibidez? Fabrikera sartu ta nok erakutsi otsun, zelan ein zendun?
–Bai. Bertan ikesi; bertan ikesi, gazte-gazterik sartute... Zaharrenak, harek gihau daki ta gazteri ikesten, ta ikesi ein gendun hori be eiten.
–Non egon zan fabrikie?
–Hor ber..., kasi albon. Laurak? Bakizu zuk non dan, Laurak? Ez dakizu non dan? Hamentxe...
–Iloba: Hamen Sondikan edo Derion?
– Ez. Sondikara. Loiure joateko zera bide, hemeti joaten zarenean harantza...
–Iloba: A, bai!
–Hortxe.
–Iloba: Bai. Trenbidea pasata.

–Bai, hortxe, hortxe. Bastante paraje, baie lau bieja eiten genduzen egunen, e... Etorri, joan ta ostabere etorri... ta sartu... Orduk sartuten genduzen ordun. Bai, ba, “vida pobre”.
–Zelan izeten zan zeure egun bat, adibidez? Ze orduten sartu, ze orduten urten?
–Beitu! Lehelau seiretan sartu “seis menos cuarto”; [sartunde genzen]. Ordu bitan urten, hiru t’erditan joan barriz, ta zazpi t’erditarte. Hori urtetan, e... Eta prisa asko badau, gauez: zortziretan sartu eta goixeko hamarratarte. ... Zer kontako tsut nik? Gauze handirik ez.
–Iloba: Egun guztie lanean.
–E?
–Iloba: Egun guztie beharrean.
–Bai, bai. Asko. Asko, ademas.
–Eta, ordun bazkaltzeko etzera joaten ziñien?
–Bai, bai. Beroa zein euria zein neguaz, bazkaltan etxera. Ordu t’erdi eiten gendun biejarako ta bazkaltako eta hori eiten gendun, bai.
–Ta han bertan, adibidez, goizien sartzen ziñen eta zer eitten zendun zuk, zure biharra zein zan?
–Bai, bai. Sartu ta beharra ta...
–Zein zan zure biharra, Mertxe?
–Ba, bobinak eiten genduzen, bobinak. Imini firuk halan makinetan, zuk eiten dozun, modun, hortxe... Imini firuk eta makinera, joan makin-..., makinillak esaten genduzen, ta firu batu eiten zan. Ta gero haik firuk batu beste leku betera, lodiaugaz, ta halan ixen zan, ba gero ta handiaok eiteko txikotek ixeten zien, eta gixonak be bai, e... Gixonak, halan gogorrena gixonak eite eben, guk fazilaue eiten gendun, baie guk be ein ein behar ordutan.
–Ta zerezkue izeten zan firue?
–Cáñamo ta sisal.
–Zer da sisal?
–Sisal, ba, firu bet ixeten zan, ba gogorra, gogorra “como hilo, pero duro, duro, duro; y luego el cáñamo le iba dentro; enroscando, enroscando, enroscando”. Eta handi ia eiteko zera. Bai, bai, halan... Ez fine, ez zan ixen fine. Nire aizteak asko hobeto bizi zan, ze joan zan bordatan ta josten, finau ni baino. Ni sartu nintzen... dirue gure ixen /guxen/ nindun nik eta sartu nintzen lanean baie gogorra, gogorra; ta nire aizteak daki ondo bordetan ta josten be bai.
–Ta nondik ekarten eben hori materiala?
–Hori? Ez dait nondi. Barkutan etorten zan, e... Barkutan. Ez dakit nondi etorko zan. Barzelonati, hurren. Barzelonati, barkutan.

11. Irabazitako dirua etxerako

- **Erref**: ERA-001/013
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:26:10. **Bukatu**: 00:28:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Bilbo Handiko lantegiak

Laburpena:
Kordeleria hiru bazkiderena zen. Enkargatuak katalanak ziren. Astean 63 pezeta zen jornala; estrak apur bat gehiago. Diru guztian ematen zuen etxean, eta nobiotan hasi zenean, ordu estrena berak gordetzen zuen.

12. Kordeleriak emandako dotea

- **Erref**: ERA-001/014
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:28:40. **Bukatu**: 00:30:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Ezkonduta, lana utzi zuen. Ez zen ondo ikusten lanean emakume ezkondua. Gizonarenarekin konpondu behar zen. Fabrikak "dotea" ematen zuen, hura uztean. Lantegiko giroa ona izaten zen. Sindikaturik ez zegoen.

13. Berrogeita zazpi urterekin berriz lanera

- **Erref**: ERA-001/015
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:30:42. **Bukatu**: 00:32:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Bilbo Handiko lantegiak

Laburpena:
Berrogeita zazpi urterekin, berriz hasi zen lanean fabrikan, Laurak-en, bulegoak garbitzen. Orduan eskubide guztiekin sartu zen, eta sindikatu ere egin zen.

14. Alaba eske tabernarako

- **Erref**: ERA-001/017
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:33:47. **Bukatu**: 00:37:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Kordelerian sartu baino lehen taberna batean egin zuen lan, eta han ezagutu zuen senarra izango zena. Tabernaren ugazaba joan zitzaion aitari alaba eske, tabernan lan egiteko. Oso gustura egon ziren berarekin, mutil-lagunarekin hasi arte. Ordura arte josten ikasteko ere ordaintzen zioten. Gero, kordelerian hasi zen; eta nobiotan lau urte ibili ziren ezkondu arte.

15. Andregaiaren aitari ezkontzeko baimena eskatu zion nobioak

- **Erref**: ERA-001/018
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:37:05. **Bukatu**: 00:38:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Gurasoei alabarekin ezkontzeko baimena eskatu zien Mertxeren senarrak, baina bera ez zen egon aurrean. San Bernabekoa zen senargaia, hurbilekoa, eta Erandiogoikoan bertan ezkondu ziren.

Transkripzioa
-Eta hor berak esan otsen gurasoeri ia nahi eben zugaz ezkondu?
-Bai, bai, bai.
-Zelan izen zan?
-A! Ni ez nintzen egon aurrean. Ni ez nintzen egon aurrean. Baie, bueno, izengo zan apurtxu bet zera.
-Bai, bai, beittu. Eta hortik segiduan ezkondu?
-Bai, ezkondu.
-Non egin zenduen?
-Bertan, Lacampan, dana Erandion. Hor ez da egon kilometrorik, bertan dana.
-Bera gizona nongoa zan ba?
-Bertakoe.
-A! Bera bertakoa be bai?
-Dana da beste... San Bernabe esaten dere. Erromeri izeten da San Bernabe, baie dana paraje. Dana paraje. Gero zerbitzu militar eiten eon zan bera Garellanon. Garellano zelan... monte... zelan da? Plentzin.
-Garellano, Plentzin.
-Cabo Villano. Eta soldadusketi libra zanen eta duzti... Ez, lelau Zamudion be egon zan. Eta gero...

16. Asuako dantzara igande eta jaiegunetan

- **Erref**: ERA-001/019
- **Iraupena**: 0:03:38. **Hasi**: 00:38:16. **Bukatu**: 00:41:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
Asuan "jolasa" (bailea) egoten zen domeketan eta jaietan. Soinu-jotzaileak jotzen zuen. Gerora plazan bozgorailua jarri zuten. Poztasunez gogoratzen du gazte denbora. Aitak ferian panfletoak (bertsoak), erosten zituen eta amak buruz ikasten zituen abesteko. Arrosario guztia erdaraz esaten ere ikasi zuen amak, erdaraz jakin ez arren.

17. Domeketan sei eta erdietako mezatara s

- **Erref**: ERA-001/020
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:41:54. **Bukatu**: 00:43:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Lau apaiz egon ziren Erandioko elizan. Parrokoa harroa eta diruzalea zen. Goizeko 6:30ean zen lehenengo meza. Umeak 9:00etakora eta zaharrak 10:30etakora joaten ziren.

Transkripzioa
-Esan dozu hor, bertoko elizan, ezta, Erandioko elizan [ezkondu ziñela]?
-Bai, bai.
-Eta nor zan abade? Edo nor ezetu dozu?
-Bai, lau egon ziren ordun. Don Jose Ramon izen zan... zelan geitzen da? el... ez naz akordako...
-Parroko edo?
-Parroko, bai. Gero Don Julian, gero Don Donato eta Don Narciso. Laurek izen ziren. Urte askotan egon ziren. Eta oin barrik ez dot ezetan inor be.
-Eta zelakuk izen zin?
-Ba bat ona; bueno, bi be bai: Don Julian eta Don Donato onak. Don Julian, ademas, gaixoari bisitaten ta duzti. Baie parroko Don Jose Ramon harro ta... ta diru zale ta... bape ona ez zan izen. Bape ona ez.
-Eta zenbat egun juten zineten?
-Domekatan. Domekatan, bai, domeka duztitan, e.
-Ta han mezak ze ordutan izeten zin?
-Ba lelako seirek ta erditan, goizeko seirek ta erditan, gero zazpi ta erditan eta gero bederatzitan eta gero zarrantzat hamar ta erditan.
-Beittu... Osea, umiek beste ordu bat eukiten eben?
-Bederatzitarako, bederatzitan umeek. Gu bederatzitan beti gaztetxuk izen... gero ez, gero goxetiau. Sei ta erdietan sarri joan gare sei ta erdietako mezara, e. Mantilla iminte. Sarri asko. Urte askotan joan gare sei ta erditan. Gero txikerretan ez, e, txikerretan bederatzitan.

18. Gerra garaian, jaunartzeko soinekoa koadroduna

- **Erref**: ERA-001/021
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:43:41. **Bukatu**: 00:46:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Domeketarako soinekoa izaten zuten, eta mantelina buruan jartzeko elizarako. Bilbon erosten ziren telak eta arropak. Gerra ostean telarik ere ez zen egon. Jaunartzeko soinekoa koadroduna izan zen, baina sandaliak zuriak ziren.

19. Elizan erdaraz eta latinez

- **Erref**: ERA-001/022
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:46:51. **Bukatu**: 00:48:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:
Lehenengo, eskolan izan zuten dotrina eta gero, elizan. Irakurri eta buruz ikasi behar zuten kartillakoa. Dena erdaraz; latin ere ikasi zituzten kanta batzuk.

20. Lau meza

- **Erref**: ERA-001/023
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:48:32. **Bukatu**: 00:50:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Fededuna da. Aurreko domekan hiru meza entzun zituen irratiz eta laugarrena zuzenean elizan. Ahaztu egin zaio Begoñako Andra Mariaren eguna dela.

21. Erramua eta ur bedeinkatua etxean

- **Erref**: ERA-001/024
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:50:01. **Bukatu**: 00:51:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Ur bedeinkatua izaten du etxean. Lehen ere beti izaten zuen erramu egunean bedeinkatutako erramua eta ur bedeinkatua. Beti egin dute arrosarioa etxean afaldu aurretik.

Transkripzioa
- Bedeinkatu egitten zenduezen geuzek? Adibidez, etxien edo?
- Bai, bai.
- Zer adibidez ?
- Bai. Nik oin be badekot ur bedeinketu.
- A bai?
- Bai. Ta honeri beti nabil eiteko gauzek.
- Ta len non eukitzen zenduen geuzek?
- Erramu beti ta ur bedeinketu. Erramu bendezidu eiten dozu “Día de Ramos” eta gero ur bedeinketu botiletxu beten, ta oin be badekot. Eta bai, iten [dot] “pater noster”, abadek eiten deuna. Igual-igual izengo da.
-Eta non ipinten zenduan?
- A, nik bertan, etxera bota ure eta eiten dozu erramuen bendizue ta igual-igual, zein kuarton, zein etxen, zein edozein lekuten.

-Eta errosarioa be...?
- Bai, bai, bai, bai. Eta guren beti egin da etxen, e? aititek eta aitek eta amak eta danok egin dou errosario, e. Danok, danok egin dou errosario. Egune ya afaltako lelatxuau, afalordu baino lelatxuau eta danok errosario santu iten gendun, danok, danok.
- Ba ondo, ez? Oie, bakotzak hamen...
- Bai, bai, misterio handi barik, ba [ez zara ikusduna]?

22. Bilbora zinemara

- **Erref**: ERA-001/025
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:51:15. **Bukatu**: 00:53:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Bilbora Truebara joaten ziren zinemara. Nobioak ordaintzen zuenez, ez daki zenbat zen. Dantzarako ere mutilek ordaintzen zuten. Pelikula politak ikusten zituzten.

Transkripzioa
-Ni ezkondute gero, bueno, ya sarrinteao urten dot apur bet kanpoti, osten Erandioti urten be ez. Bilbora.
-Bilbora zetan juten zinen?
-E?
-Bilbora zetan?
-Bueno, bakizu, ba, erosten edo zinera edo... ba... arrasti pasetan.
-Zinera esan dozu?
-Bai. Buenos Aires ta Truebara joaten gintzezan. Bai. Onak izen zien zinek, e.
-Eta zenbat kostaten eben lengo ziniek?
-Ni eske beti nobioa euki dot pagetako. Ez dakit hori, beitixu.
-Zelako morroa.
-E? Bai, bai...
-Klaro...
-Ni ez nintzen akordaten page ein behar dotelako be. Halao lujuk mutilek pagaten eben. Dantzan [iteatik] be mutilek. Guk ez gendun pagetan.
-Bai, ezta? Eureri emoten eutsien ez? Edo eureri eskatu, ez?
-Eureri eskatu.
-Zenbat eskatzen zan?
-Hamar zentimo edo izeten zan, gitxi. Baia eurori, guri ez, e. Ta zinera be ni ez naz joan neu pagata ez naz joan inoz be.
-Eta zinean ze pelikula ikusi dozu? Ze akordaten zara?
-Oso politek, onak izeten ziren zinera joaten gintzezan, e. Bakizu, hau e, zelan geitzen da...? Sara Montiel eta horrek nonbradu izeten ziren eta horrek duztiek danak ikusten genduzen. Eta zinema onak izen zien. Oin itxi die, ezta? Baie ordun zinek onak. Calle Buenos Aires eoten zan Trueba eta Buenos Aires beste be.

23. Ezkontza bai, baina bidaiarik ez

- **Erref**: ERA-001/026
- **Iraupena**: 0:04:18. **Hasi**: 00:53:00. **Bukatu**: 00:57:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Lau seme-alaba izan zituen. Ezkontza egunean etxe aurrean jarri zuten mahaia toldopean. Berrogeiren bat gonbidatu. Soineko beltza eraman zuen. Bi soineko egin zituen ezkontzarako. Pelukerak jarri zion mantelina. Fabrikak emandakoa izan zen dotea. Ez zuten bidaiarik egin; geroago egin dituzte bidaiak.

24. Lehenengo semeak etxean jaio ziren

- **Erref**: ERA-001/027
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:57:18. **Bukatu**: 00:59:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Lehenengo ume biak elkarren atzetik jaio ziren, etxean biak. Azken biak klinikan. Emagina eta etxekoandre bi izan zituen laguntzeko erditzen. Emagina Sondikakoa izan zen.

25. Gerrako babeslekua osabak egindakoa

- **Erref**: ERA-001/028
- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 00:59:39. **Bukatu**: 01:03:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerra garaian, soloan, munan izan zuten babeslekua eginda. Bonbardaketetan amarekin korrika babeslekura joateko ume asko zirenez, aititarenera joan ziren Lauroetako baserrira, Loiura.Han osabak egindako babeslekua izan zuten. Ez zuen gauza handirik ikusi baserritik: sei moro pasatzen, hegazkinak gainetik, metrailak. Sirenek iragartzen zuten noiz sartu babeslekuan eta noiz irten. Trenaren tunelean ere egoten zen babeslekua eta hildako animaliak ere han gordetzen zituzten haragia banatzeko.

26. Izekoren nobioa bakarrik politikarekin lotuta

- **Erref**: ERA-001/029
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 01:03:44. **Bukatu**: 01:06:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Familian inoiz ez dute lotura politikorik izan eta familian inork ez zuen ihes egin. Umeak baserrian egon ziren, Loiun, aitita eta amamarekin, eta ez zuten beldurrik pasa. Izekoren senargaia bandoz aldatu zenez, izekok utzi egin zuen.

27. Errazionamendua gogoratzen du

- **Erref**: ERA-001/030
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 01:06:21. **Bukatu**: 01:07:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerra osteko oroitzapena du: errazionamendua; baina hala zelakoan onartzen zuten. Kartilla eraman dendara eta ematen zuten olio edo azukre errazioa.

Transkripzioa
-Zu akordako zara hobeto igual gerraostie, ezta?
-Klaro. [Nezezidi] gehiau. Baie ez gauza onik, e. Razionamentu dana, esan dotzut, dana razionamentu. Eta halan dala eta: “Así es y así tiene que ser”. Gero hasi gintzezan geu be irabazten apur bet eta normalize zan apurtxu bet eta gure denpora hori izen da. Ez, ez, ez dekot historia handirik nik.
-Errazionamentuetan ze egoten zan? Kartillak edo holako zeozer?
-Klaro kartillek, kartillek. Bai. Ta zenbet... ba... litro erdi orio, kontue atareizu, eta azukre kilo erdi. Halan izen zan dana, e. Dana, dana.
-Eta kartillak zer ziren, pertsonalak edo familia edo zer?
-Ez. Zuk eroten dozu dendara eta horreaz, seiluaz, emoten dotzue errazino, ez dekozu gehiau, ez diruaz ez... Dirurik ez eon be, e.

28. Gerra garaiko diruak

- **Erref**: ERA-001/031
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 01:07:25. **Bukatu**: 01:11:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:
Aldatu egin zen dirua. Amak erloju gainean gordetzen zuen, baina hura balio gabe geratu zen. Paperezko Euzkadiko dirua gogoratzen du. Milizianoak sartu ziren, italiarrak, eta haiei saldutako jakiekin hasi zen ama diru apur bat egiten. Zilarrezko ogerlekoak egon ziren, zentimoak, erreal bikoak, pezetak, motorraren irudia gainean zuten txanponak...

29. Senargaiak askoz gehiago irabazten zuen

- **Erref**: ERA-001/033

- **Iraupena**: 0:00:27. **Hasi**: 01:11:48. **Bukatu**: 01:12:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Senargaiak harrobian egiten zuen lan. Primerako ofiziala zen, eta berak baino askoz diru gehiago irabazten zuen.

Transkripzioa
- Kanteran, ladrillu. Izen zan "de primera" eta horrek ba diru [irabazten euen, ze ona...], Altos Hornorako eiten euen behar eta nik dana txikerra, sesentaitres pesetas. “¿Por eso trabajas?” esaten osten. Ha [etxe ba] dirua, bizimodua atara. Ez dekot gauza handirik nik kontetako, esan dotsut nik.
- Ez! Onbre, ba...

30. Gabonetako ogi bedeinkatua txakur amorratuarentzat

- **Erref**: ERA-001/035
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 01:12:25. **Bukatu**: 01:15:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Gabonetan bisigua jaten zuten; aurretik azalorea edo aza. Urte zaharretan, txitxarroa. Beti zuten oilaskoa (etxekoa). Mantela jartzen zen beti Gabonetan. Lehenengo ogi koskorra mantel azpian gordetzen zen, bedeinkatu eta gorde egiten zen hurrengo egunean txakur amorratuari emateko. Etxekoak (gurasoak eta neba-arrebak) elkartzen ziren Gabonetan.

31. Andra Mari eta Gorpuzti egunak familia batzeko jaiak

- **Erref**: ERA-001/036
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 01:15:15. **Bukatu**: 01:16:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Andra Mari Egunean, abuztuan, denak elkartzen ziren etxean. Bakailaoa piperrekin, arroz-esnea eta moskatela jaten zuten. Gorpuzti Egunean aititarenera joaten ziren.

Transkripzioa
- Etxekue?
- Ez, ez, ez, hori eiten gendun Andra Mari egunen, osabak etxen. Eta

Gorpuzti egunen danak aititena. Hori eiten gendun, bai. Baia Andra Mari egunen, “quince de agosto”, danak etxera. Amak eiten euen “arroz con leche” eta “moscatel” eta piperrak makailoaz eta hori bazkarie izeten zan eta postre gurea eta pozik! Halao fuente batzuk handi iminte, “arroz con leche”a, zelan kanela iminte eta mahaia. Mahaia aparte euki naben, ez [esueteko], aparte euki euen beste mahai bat jaietarako. Ta hantxe ganen iminte gendun “arroz con leche” danak fuentek ederrak... Eta hori eiten gendun postre eta...
- Zelan eitten eban "arroz con lechie"?
- Bueno, apurka-apurka, etxeko esneaz eta oso elegante, geur baiño goxoau, baia oin... Ta hori be akordaten naz, piperrak halan, piper gorrikaz iminte makailo eta primerako, elegantena izeten zan.
-Orduen Gabonak eta holako egun berezixek?
- Bai, hori be besegu egun... [...] izengo zien, ze guretzat zati bet jateko be... Baia beti-beti-beti, bai bai.

32. "Urtebarri bila" auzoko etxeetara

- **Erref**: ERA-001/037
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 01:16:35. **Bukatu**: 01:19:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
Gaztetan joaten ziren gauerdiko mezatara Gabonetan. Txikitan, "Urtebarri bila", eskean, joaten ziren auzoko etxeetara: mandarinak, intxaurrak, piku-pasak edo batzen zituzten. "Urte barri txarri belarri, dekonak ez dekonari..." esaten zuten.

Transkripzioa
- Gaboneko afarixe, ez? Eta gero egoten zan hor gaba erdixen meza bat edo...
- A bai. La misa del gallo. Gu joaten gintzezan gaztetan, gaztetan joaten gintzezan, bai. Hamabitan izeten zan. Baie gero itzi gendun hori be eta... Urte batzutan bai, e? urte batzutan egiten gendun hori, bai.
- Eta gero urte barrixen?
- Urte barrin ba txikerretan joaten gintzezan igual auzotara, urte barri bile, eta batek mandarina batzuk –geuk be bai gero, e? Gero, zarrago izen garenen geuk be bai– mandarina batzuk, ala intxurre batzuk, ala uba-pasa batzuk o ikok edo zozer halan [...]. Eta pozik [harik] batu diela ta! Pozik! Ta guk in duu gero gazteri, guk in duu hori gazteri barriz. Ta danak pozik horretxek gauzekaz. Oin aitu be ez dot eiten, baie ordun gauzek gozok.
- Eta nundik juten zinien?
- Auzoak, auzoak, bai. Auzoak, ba, lau edo etxe aldek ziren, besterik ez, ze gitxi izen gare, baie hor... ba etxeko modukok. Eta joan eta eskatu “urte barri”. Eta gero...
- Eta zenbat jente juten zinien?
- Hamar edo.
- Neska eta mutil?
- Neska eta mutil, bai, bai, danak era batera, danak era batera. Gaztek danak, e! gero lanean be gazterik joan gare... Danak gaztek.

- Zeozer kanta biher zenduen eskatuteko?
- Apenas. “Urte barri txarri belarri” eiten gendun.
- Zelan zan hori?
- “Urte barri txarri belarri, dekotenak ez dekonari zeuk dekozu eta niri...” ez naz akordaten.
- Intxaurtxu bi ta...
- Ez naz akordaten gehiao. “Urte barri txarri belarri, dekonak ez dekonari zuk dekozu eta niri...” gero ez dakit zelan akabaten dan.
- Nik dakit “Intxaurtxu bi eta hiru gaztaiña, mari montaña”, ez?
- Bai, hori be entzunde dekot, baie geroratxuago.
- Bai, geroratxuago, ez? Hau gerokue da.
- Bai, geroratxuago.
- Eta kanpaiegaz joaten zinien?
- Bai, bai
- Beittu.

33. Maletatxoa piku-pasekin opari

- **Erref**: ERA-001/038
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 01:19:08. **Bukatu**: 01:20:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:
Erregeetan oparitxoren bat izaten zuten: eskolarako maletatxo bat piku-pasekin edo. Neba-arreba artean, zaharrenak argitu zuen erregeei buruzko egia.

Transkripzioa
- Eta gero zuok errege egune be eukitzen zenduen edo hori ez zan eitten asko?
- Bai, lelau bai, maletintxu bet edo, konpasa batzuk edo barrun sartute eta, bai, zeozer betik eukiten gendun. Beste batzuk igual gehiau, baie eskolarako maletin txiki bat edo, bai, eukiten gendun, bai, eukiten gendun. Baie ez asko e, ez asko, baie txutxu kentzeko bai.
- Eta hor egunien be baijan eitten zan ondo?
- Bai, errege egunerako beti, beti.
- Eta gurasuek gero esan egin eutsuen zeuori? Gurasuek edo?
- A, bai, bai. Lelao isil-isilik hainbeste denporan euki genduen, e? Baie gero zaharrenak esan euen zeozer eta esan geun: “Zeitik esaten dotsezu ba?”, “Ba egi dalako”. Gero ba iusinoa kendu eiten dotsu, baie, bueno, gero be zeozer egongo zan.
- Bai, benetan, bai, bai.

34. Andra Mari eta Gorpuzti

- **Erref**: ERA-001/039
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 01:20:08. **Bukatu**: 01:21:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Baserritarrek San Isidro ere ospatzen zuten. Igokundea edo Asentzio eguna ere ospatzen zuten. Meza eta erromeria zen ospatzeko modua. Seme txikiak zituela su artifizialak ere egoten ziren.

Transkripzioa
- Eta gero zuen egunek, orduen, zein izen diz? Gorpuzti eta Andra Mari?
- Andra Mari, bai, bai, handienak horrek izen ziren. Gero aldeanuk San Isidro, horrek sindikatok eta horrek duztik, aitek eta idik eta probak-eta egoten ziren eta gizonak hor. Hori izen zan San Isidro egunen. Baie osten gure jaiek izen ziren... Asentzio be bai, a? Asentzio be bai. Baie zan Gorpuzti gehiago izen zan, Gorpuzti eta Andramari gehiago izen zan.
- Eta horretan egunetan zer egoten zan?
- Mezea, eta gero jolasteko edade badekozu, ba, jolasten joan eta, osten, ba, antzeko.
- Igual erromerixe edo egoten zan.
- Bai, erromeri bertan egon zan Erandion. Eta "fuegos artificiales" gure txikerrak... gure mutilek txikerrek izen ziranen baitte. Nik eroaten nenduzen eta negar eiten eren eta asago joan ein behar. Bai, bai, Andramari egunen zerak egoten ziren eta oin be [koiau] osta bere, e? Gorpuzti [be koiau euen barriz be] Erandion. Hasieran be lotute egon da, ezta? baie oin hasi da barriz jaia modure koiten, bai.
- A, ondo ez? Jaixek eta...
- Bai, bai, horrek jaiek beti errespetau douz. Beti.

35. Santa Ageda Erandion

- **Erref**: ERA-001/040
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 01:21:32. **Bukatu**: 01:23:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
Santa Ageda egunean gizonak joaten ziren etxerik etxe kantatzen. Neska gazteei beti gauza onak kantatzen zitzaizkien bertsoetan. Neska zaharrei ez. Zeloak ere izaten ziren gaia.

Transkripzioa
- Eta Santa Agedak edo?
- A bai, Santa Ageda be kanta. Polito.
- Eta zer eitten zenduen, etxerik etxe edo zelan?
- Ez, guk ez. Gizonak etorten ziren kantaten, gizonak. Bertso bota neskari eta gizonak etorten ziren etxera kantaten.
- Eta zer kantaten eben?
- Ba nik ez dekot hainbeste memori be, ezta? Baie ni akordaten naz zelan izekoari be... “Ai Dolores non zara, hemen agiri zera. Lagun guztik ezkondu eta zeu zeaitik iten ez zara” eta halakotxe asko eiten ixen zien. Gaztetik, bakizu, gaztena... beti gauze politk botaten. Gazteri.

- Holako berba polittek.
- Bai, bai, danak pozik entzuteko.
- Beste zeuzer esaten eben be bai akorduen dekozune?
- Ez, ez, ez naz akordaten asko.
- Igual esaera zaharrik edo esaten eben?
- Bai, neskazarrari be gauze txarrak esaten ixeten ziren.
- Zer esaten eutseen?
- Bueno... Neskazarrak, bakixu, jentiek, e... Hasarratu eiten zien neskazarrak halan gauze politek ez baeutsen botaten. Zelok. Bai, bai. Izeko bateri be, niri halan esan osten: “Aitu zer esaten etor datezen”, hasarre. Bai, gazteri ba beti politauk. Kuadrillek etorten ziren ordun, e! kuadrillek. [...]

36. Ama kantari, baina seme-alabek ikasi ez

- **Erref**: ERA-001/042
- **Iraupena**: 0:04:51. **Hasi**: 01:24:09. **Bukatu**: 01:29:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Amak bertso eta kantu asko kanta arren, seme-alabek ikasi ez. Osabek ere kopatxo baten ostean ederto kantatzen zuten. Bera lanean hasi zen oso gaztetan, eta ikasteko astirik ere ez. "Antontxu, Antontxu..." kantatzen du. Oraingo bizimodua hobea da.

Transkripzioa
- Ez, nire ama ez zan izen, zera, kantuk berak, esan dotsuten zelan zirezan halan apur bet bersolari eta bertsok beti jakiten ituzen berak. Baie gu ez gara izen ikisteko, ikisiko ez gara izen, baie osten berak kantuk itzelak, itzelak. Akordaten naz zelan... politek ademas, "de amor", e! politek jakiten [ituzen]. Eta ikisi be egin [gendun] noizbait ta duztiz ez dakit. Ez dakit. Oso politek ee, oso politek. Ama izen zan kantari, alegre eta, badinotsut, bertsolari antzeko. Aitek esaten eben: “beti botaten dotzu harrikade ensegida”, beti. Eta izen dire beste neba bi beranak be bai, e! Baie...
- Nortzuk ziren hor epokako bertsolarixek? Holan famosuek egoten ziren? Ez dakit, Mañukorta edo...
- Ez, ez, ez. Ademas, izeten ziren, ezta, alegre, baie kopatxu betegaz eukiten euen, e! ordun ataraten eben dana. Formalak, ezta? baie...
- Baia apur bat alegre.
- Bai, alegre, alegre. Gitarra zar bat euki, zera, eta itzel, itzel, umore onekok.
- Beti hori, beti ia ipuiñen bat edo nonok kontaten osten edo akordetan dana, konta deutsuena edo...
- Ez, ez, ez. Kantzino politek bai amak, baie... halan batzuk [dakiz] euskeldun kanta politek eta nik zenbet bidar esaten doten “nik zelan ez dodaz ikisi horrek? Zelan ez dodaz ikii horrek nik?”. Pena emoten doste, e!
- Bai, baia, bueno, epokie be bazan, ezta? Justo erderie tokau jatzun eta ze gure dozu?
- Ta lan asko, ta astirik pe ez gauza askotarako, e.
- Dana... dana Mertxe ezin da...
- Ez, ez, ez. Ez, amak kantaten [eben] igual: “Antontxu, Antontxu zara

zu...". Zuek horrek jakingo dozuez. Klaro, horrek ba zuen aitek eta amak be... "...kuartillu ta erdigaitik ohia saldu dozu. Ama datorrenian nian, aita datorrenian nian etxetik kanpora bialduko zaitu". Ta halakoxek ama difuntek kantaten euzen. Gero kantzinok badinotsut ba [...] eta horrek guztiek, baie kantzinok halan elegantek, habanerak eta batzuk zelan dakiten, horrek erderaz diz asko. Baie horrek kantak euskeldunek be politek dauz, e? Niri gustaten jatez itzel, e? Itzel gustaten jatez, baie ez dakiaz.
- Bale, perfekto, ez? Ondo. Gustora egon zara?
- Konformidade handiko zarala zu.
- Ni oso gustora egon naz. Esan dotsut, zozer gehixago badekozu kontateko, kontaizu.
- Ez, ez.
- Ez, ez? Ez dakit, umetako kontuk edo ez dakit...
- Umetasun gitxi eukin dogu. Izen gara ensegida adultok. Eta gero fabriken, kontue ataraizu, gazte-gazterik eta... Ez dogu euki "una vida de color rosa".
- Hori egixe da, oin diferentie da ta...
- Diferente, diferente da. Eta hoba da, e! hoba da. Nik esaten dotsiet sarri askotan: "ene! zuek ez dekozue hemen bizio baiño", baie itzi eizu bakean, guree be tristie izen da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-27

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com